

ZERO

ZErO

eSKO/a


fAnZinea

MAITASUN
HANDIZ ...

CON MUCHO
CARIÑO...

Aitzi

GURE UNIBERTSOAN GALAXIA ASKO DAUDE




GURE GALAXIA
ESNEBIDEA DA


HEMEN
GAUDE




LURRAN ZAZPI MILA MILIOI PERTSONA BIZI GARA



ZENBAT
JENDE!!



ETA MILAKA LEKU EDER DAUDE



BAINA GAUR GASTEIZKO
TXOKO txiki BATERA NATOR...

RAMON!
BAJORA!



primăvara a venit
cu alai de flori albastre
și cu cerul însorit,
pe meleagurile noastre.
hai, copile, în câmpii
să fugim să prindem fluturi,
galbenelor pădăii
pălăria să le-o scuturi.

enrique eta felicia

hh 3

ZINGAR-ARRAULTZE, ZINGAR-ARRAULTZE
EZ BADA, BERTZE BERTZE.

ARHANE HH3

Inauterietan, ortzegun gizen egunean, goizez zingar arrautzea egiten dute Beran. Herriko haurrek auzo desberdinetik eskean ibiltzen dira (lehen aurraultzak eta txerriko jakiak, eta orain pixkat danatik ematen da) eta lortutako guztiarekin guztientzako hamaiketako bat prestatzen da.

Aspaldi aspaldiko kanta bat, Arratia (Bizkaia)
eskualdeko kanta tradizional bat, haurrak
kolunpioan edo ziboan daudenean abesten dena.



<https://labur.eus/rb5>

**din dan nor hil da?
Peru Zapaterue
zer egin dau?
Pekatu
aUZoko txakurre urkitu
teila ganean zikitu
hori baino ez badau egin
ein beharko jako barkatu**

Adur hh3

Ipuin ipuin

Ipuin ipuin perresil, ahuntzen babak egozi!

Goian eta behean nabilen artian, txakurak eta katuak janda utzi!

-Non daude txakurak eta katuak?

-Eskailerapian!

-Non daude eskailerak?

-Suak erre!

-Non dago sua?

-Urak amata!

-Non dago ura?

-Beheko txalak edan!

-Non dago beheko txala?

-Diruetan saldu!

-Non daude diruak?

-Kartetan galdu!

-Non daude kartak?

-Beheko hormako zuloen barruan usteldu!

irati eta aitziber

hh5



Cuenta la leyenda que en un árbol
se encontraba encaramado un indiecito guarani

Que sobresaltado por un grito de su madre
perdió apoyo, y cayendo se murió.

Y que entre los brazos maternos
por extraño sortilegio en choguy se convirtió.

Choguy, choguy, choguy, choguy

cantando está, mirando acá

mirando allá, volando se alejó.

Choguy, choguy, choguy, choguy

que lindo va, que lindo es

perdiéndose en el cielo guarani.



Y desde aquel día se recuerda al indiecito
cuando se oye como un eco al choguy.

Es el canto alegre y bullanguero
del gracioso naranjero que repica en su cantar.

Salta y picotea las naranjas
que es su fruta preferida, repitiendo sin cesar.

Choguy, choguy, choguy, choguy

cantando está, mirando acá

mirando allá, volando se alejó.

Choguy, choguy, choguy, choguy

que lindo va, que lindo es

perdiéndose en el cielo guaraní.



Milan

hh 4

Esta es una leyenda de mi país Paraguay. Como todos ya lo saben, nuestros antepasados eran indígenas y cada tribu tenía su nombre. La nuestra eran Guaraní y nuestro idioma materno también es el guaraní, a pesar de que la música está hecha en castellano. De hecho, el nombre del pájaro en el que el indígena se convirtió después de morir está en el idioma guaraní.

Este se llama Choguy.

Gogo eta gorputzaren
Zilbor hesteak:
Bi kate.

Bi kate,
biak ebaki beharrezkoak:
Bat gorputzaren bizitzeko,
bestea gogoaren askatzeko.
Adizu, ama
badakizu
sortze berean
zuri gorputzez lotzen ninduen
zilbor-hestea
sendagileak nola eten zuen.
Lehenengo eten beharra izan zen:
bizitzaren
bizitzeko lehen legea.
Haurtzaroan
titia eman zenidan,
mutilzaroan
eskoletara bidali
bizitzarako armak hartzearren.
Dena eskertzen dizut
duen balore guztian,
nik ahal dudan neurrian.



Bainan, gaztaroan
amatxo maite!
ohar zaitez
benetan maite nauzun ama
izan nahi baduzu
eta nik zu maitatzea,
ni naizena
nik izatea nahi dudana izatera
utzi behar nauzula,
hau baita bide bakarra
biok alkar sanoki maitatzeko,
biok alkar osoki eta betikoz
maitatzeko,
zuk zure nortasunaz,
nik nereaz,
zuk zure nortasunaz,
nik nereaz.

Ama!

eten dezagun
lehen gorputzarena bezela
orain,
gogoaren zilbor-hestea.

Ama!

gogoaren zilbor-hestea.

Mikel Laboaren abestia
Aitzi



Euria mendian
Euria kalia
Ume ez zaitez busti
Zaparrada artian
Hartu aterkitxo
Aterki handia
Ume ez zaitez busti
Zaparrada artian

Paule
hh 4



Ume nintzenean joko bat nuen nire amarekin: zer bazkaldu nuen asma zezakeen, nire buruan ukabilarekin joz.

Ate joka bezala, suabe suabe ematen zidan buruan, birritan, eta ondoren ukabila usaintzen zuen. Lehendabiziko platera, bigarrena eta postrea asmatzen zituen truko horrekin.

Hegoa eta Liberekin antzeko egiten dut: hamaiketakoa zein izan den asmatzen dut, zer bazkaldu dute etxean egon ez banaiz bazkaltzeko orduan, eta batzuetan ere zér egin duten eskolan edo parkean beraiekin egon ez banaiz.

hegoa eta goiuri

hh 3

ALKAIBEHEREA BASERRIAREN KONDAIRA

Istorioak dio han zazpi edo zortzi emakume bizi zirela eta gauero gariari hostoak kentzen egoten zirela han kanpoan. Gau batean haietako batek besteekin apustu egin zuen eskuarea menditik jaitsiko zuela, baina ez zitzaion inoiz berriro ikusi. Etxetik ahots misteriotsu batek zera esaten entzun zuen:

"Gaua gabazkoentzat, eguna egunazkoentzat alkaibeherako neskatxa guretzat".

Gabazko deabruak bahitu zuela dio kondairak eta eskuarea menditik behera jaitsi zuela abiadura handian herriko ermita kontra 30 arte.

Berako kondaira.

arhane eta lore

hh 3



اعطونا الطفولة

جينا نعيديكم... بالعيد منسألكم
ليش ما في عنا... لا عياد ولا زينة
يا عالم
أرضي محروقة
أرضي حرية مسروقة

سمانا عم تحلم... وتسال الأيام
وين الشمس الحلوة... ورفوف الحمام
يا عالم
أرضي محروقة
أرضي حرية مسروقة



أرضي زغيرة... متلي زغيرة
ردولا السلام... واعطونا الطفولة

اعطونا الطفولة

اعطونا الطفولة

اعطونا الطفولة

YARA



ESKOLATIK ATERA ETA...


AGUR
AITZIBER!



ESKOLA ONDOREN PARKEAN
EGOTEN DIRA JOLASTEN




LEKU HONI
PLAZA RAFA
DEITZEN DIOTE
ZERGATIK
OTE?



BEGIRA...
ZOZO BAT

EGUZKIAK NIRE AURPEGIA
BEROTZEN DU




maddi goikoetxea

hh .4

la caca de la muntanya
no fa pudor
encara que la remenis
amb un bastó







Eguzki lorearen kondaira

Duela milaka urte, mundua iluntasun osoan bizi zenean eta ez zenean ezer ez ikusten, sorginak, zenzuzkoak, zaldi hegalariak eta herensugeak lur azpitik ateratzen ziren lurrean bizi ziren gizakiak beldurtzeko.

Orduan, gizakiek Lurrari laguntza eskatzea erabaki zuten. Eta lurra esan zien:

-Semeok, laguntza eskatu didazue eta hori egingo dut. Izaki argitsu bat sortuko dut eta honi ilargi deituko diozue.

Honela, Lurra ilargia sortu zuen. Gizakiek ilargiaren argiaren beldur ziren, baina pixkanaka pixkanaka ohitu ziren. Sorginak eta herensugeak ere hasieran beldur ziren arren, gizakiak bezala ohitu egin ziren eta berriro hasi ziren lur azalera ateratzen gizakiak izutzerara.

Izuturik, berriz ere Lurrarengana jo zuten gizakiek, oraingoan botere sendoago baten bila.

-Ongi da, oraingoan izaki argitsuago bat sortuko dut eta honi Eguzkia deituko diozue.

Horrela, Eguzkiak eguna sortu zuen, eta Ilargiak, berriz, gaua.


Eguzkia oso handia, argitsua eta beroa zen, baina gizakiak azkar ohitu ziren. Honen berotasunari eta argiari esker, loreak jaio ziren, eta herensuge eta sorginek ezin izan zuten egunaren argitasunera moldatu. Baina gaua iristen zenean, berriro ateratzen ziren gizakiak beldurtzera.

Orduan, gizakiak Lurrarengana joan ziren gauerako babesaren eske.

-Hemen duzue, lore eder bat. Gaueko izakiek lore hau ikustean Eguzkia bera dela pentsatuko dute eta ez dira zuengana gerturatuko.

Horrela sortu zen Eguzki-lorearen eta geroztik Euskal Herriko etxeetan Eguzki-lore bat jartzen ~~den~~ atean gaueko izakiak izutzeko.

Aitzi



[REDACTED]

LO QUE TIENES ENTRE TUS MANOS ES UN FANZINE, UNA REVISTA AUTOGESTIONADA Y CREADA CON MUY BAJO COSTE.

GRACIAS A LAS FAMILIAS Y LXS TRABASADORXS DE INFANTIL DE RAMON BAJO, HEMOS CREADO ESTE PEQUEÑO ESPACIO DONDE PODER EXPRESARNOS, COMPARTIR SABERES, SENTIRES Y PENSARES, Y ENCONTRARNOS LXS UNXS CON LXS OTRXS.

HA SIDO UN PLACER ESCUCHAROS Y LEEROS.

FOTOCOPIA Y COMPARTE ESTE FANZINE LAS VECES QUE QUIERAS 😊

[REDACTED]

[REDACTED]

ZURE ESKU ARTEAN DAUKAZUNA FANZINE
BAT DA, ALDIKARI AUTOGESTIONATUA EKOIZPEN
KOSTU OSO BAXVAREKIN SORTUA.

RAMON BAJOKO HAUR HEZKUNTZAKO FAMILIA
ETA LANGILEI ESKER ESPAZIO TXIKI HAU
SORTU DUGU, JAKINTZAK, SENTIPENAK ETA
PENTSAMENDUAK ADIERAZTEKO, KONPARTITZEKO
ETA BATA BESTEAREKIN AURKITZEKO.

PLAZER BAT IZAN DA ZUEK ENTZUTEA
ETA IRAKURTzea.

FOTOKOPIATU ETA ELKARBANATU FANZINE
HAU NAHI DUZUN BEZAIN BESTE 😊

[REDACTED]



